

Juli'k eu entzunda, arpegiya itxaldurik, azkenez negafez asi da.

Gerotxu, aiteitari dirautso: Oingo gastiak neu lez saminduko ba'litzozak edesti edo istorijau ikusijaz. Ianian asiko litzakezak, baiña biala ba'litzok euren bixitza opaldu geure efiñaten zoruna lotutiafen.

Baña ez: neu bakañik baño ezpa-nok asiko nok al-ixango yuadan artian ikaskixun orek zabaltzen, euzko-gogua piztuten.

*Aii*—Eñaz i bakaña uste ofetan. Alditxu dok, euzkotaf zintzo batzuk yinardube lan ofetan. *Jaun-goikua eta Lagi-Zaña* dok euren ikufitza (lema) ta bertan yagok euzkotaf on gustijak gura yoena.

Itz edo berba ofen esan-gurea Juli'k ezekijan lez eskutu eutsan aiteitari atzaldu legitontzat.

*Aii*—Len lez adi egon ba. *Jaun-goikua*'k esan gura yok gertu gayagozala Jaun-goikua ta Doibatz edo Elexea aldeztu edo *dependiduteko* Euzkadi baño lenago

*Lagi-Zaña*'k Euzkadi'ren buru-jaubetasuna, lagijak, Batzaf Nagosijak, ekandu onak, ele edo berbeta edefa ta abaf atzera ekañtia. Eta gurago yoela Euzkadi, oin lez erbestepian baña Jaun-goikua'z bat-eginda ikusi, azke ta buru-jau-be, baña Jaun-goikua'gandik aldentuta ikusi baño—Gaste ofen Batzari yeretxok *Euzko-Alderdi Jeltzolia*.

*Jul*—Nik uste nayuan baño obia da alderdi ofen gurari-ja. Gaultik aufera euretariña ixango nok. Poz-pozik nayagok noiz-edo-noiz Euzkadi neure Abefija ezautu yuad-lako

Batzafik inñan ba-yagok, txiro edo *pobria* nok, baña oñez ba-dok be, araxe juango nok. Lan onetan nok lagunduko nayuan bai-edo-yuat idoroko, Jauna'ri eskañak.

*Lafal.*

## Osagai ona

Erotagarai'ar Txomin'en begiyak lausotu zaizkiyo; betaufekuak ipintzen diñu sagardotegira juteko, bestela bidian diojala naiz ta inñor auñian jafi, Txomin'ek betaufekorik-gabe ezin izaten du ikusi.

Ostera beriz, sagardotegiik kanpora ateratzen damian, naiz ta ere betaujekuak partikaran gordiak eraman Txomin'ek oziak bere auñian ikusten diñu txist argi, naiz ta ere betaufekuak inñor, inñortxo'ez eduki,

*Tene.*

Deba.

## Rousse ta lagunak

*Ledesma-15'ka. 1458'g. urutizkiña (telefonua)*

Ikatz eta patata-bildegij andijak. Batez-be ereteko patatak.

## GAIZTAKERIYA

Juan dan egun edef baten urten nitzan etxetik ibiltze bat egiñera. Eguzkiya bero-samañ zegon eta alde egin niyon ala-ko sagar zuaitz baten kerixara atsedan-afupa egiñeko

Txoritxu bat zeguan ganiñan; negafezko txiyuak tamalez entzuten niyozkan gaxuari, adañtxurik-adañtxu aldatzen uf-urian zebillan-eta.

Eñukiyak jota, zer ote-zuban ezin bururatu zitzaidan nere burubari galdeten niyon: ¿Baten-batek afikadaren bat jo ete-diyo ta min ete-dauka? ¿Gose edo egafi ete-da?

Onton nengola ikusi niñuan iru adañtxuren eñdiya oroldi-txamañ ta belaf almitz igerak. ¿Gaxua!

Antxe zeukan kabiya, antxe umetxuen oe biguña, ta gaiz-toren batek eraman ziyozkan-edo, euren ama poliña negafez utziña

Txoritxua ola ikusiyaz znori etzayo biyotza beratuko?

Zentzunik ez dubanek gaiztakerirako nekezik ez du-ta, beriz ere eñaz dijua bere burubaren kaltezko lanetara. Oyek ez dute oroiñenik eta ez dakite zer egiñen duten. Baña noiz-pait etofiko al-zaigu oroiñen ori ta orduban ikusiko degu zelako gaiztakeriya dan txori-kume-galtze ori.

Laga ditzagun, ba, geldi, amatxuari negaf eragin-gabe, beriak dira-ta; gero egotxuetañ indaf egiñen zaizkienian ikusiko doguz axe-tañtian nola dabilzan, enli, eltxo ta ain-bat gañerako mamoin galgariyak afapatzen, baña zuaitz adañtsu baten ganiñan, sasi-arantza-tañtian, erekaldeko ari-yan edo beste lekuren baten, toki orek apañduten eta beren abesti zoliyakaz alañtuten.

Txoriyak, ba bialak ditugu, ondasun onuragilliak eta zoriyongariyak diralako.

Orañdiyok gezygo idatzu edo *eskribiduteko* nuke gai onetzta, baña zerbait luzatxo ere bai-dijua ta aski da gaur txoriyakanako nere maitasuna ageñtzeko.

Elgoibar.

*Gelaxo Eñota.*

## Amabosteunoroko gora-bereak

*Eñi menbetuben batzara*.—Juan diran egunetan Suitza'n batzaldu dira eñi menbetuben ordelarijak euren asmo abef-tzaliak zelan ondoen loñtu daikiezan iñunduteko.

Bertara erdu dira 25 eriren ordelarijak eta lenengoz Euzkadi geure abefijak bere ordelarijak, Eñeizalde, Eizagire ta L. Mendizabal, ara baidaldu dauz.

Entzun dogunez lan edefak egin dauz batzaf orek. Edef-to, edefto deritxogu geure abefijak bere buruba gustijen auñian irakustiari eta poztuko gara batzaf ofetatik Euzka-di'k onurarik artuko ba'dau.

*Jaun-goiko-Zale*.—Illa onetako 5'kn. Eñofio'n batzau ziran Bazkun onetako *abadiak*, urtebeteko gora-bereak eta Bazkunaren irabigundia azertuteko.

*Abade* edo jaupari-mordo poliña ta beste euzkeltzaliak be batu ziran Bizkai ta Gipuzko'ko efiñjetatik ara juanak.

Entzun dogunez poz-pozik egin ziran gustijak Bazkuna auñera ta auñera duala ikusijaz, ta asmo edefak aftu ebe-zan, euzkeldunen artian Jaungo, ta Uskurtz edo erekinuaren gauzeak euzkeraz geruago ta sutsubago zabaltzeko. ¿Gora, gora abade euzkeltzaliak!